



AYUNTAMIENTO
del VALLE de EGÜÉS
EGUESIBARKO
UDALA

**“Joakin Lizarraga Elkanokoa”
Euskarazko Narrazio Laburren
Saria 2017**

Lehen Hezkuntzako 4. maila: 2. saria:

EGUN BAT MARTEN

Aler Díez Bonillo

Bazen behin familia bat hain behartsu zena ezin zutela etxea ordaindu, eta egun bat ordaintzeko besterik ez zuten. Familia hortan, Jack 18 urteko mutil bat zegoen. Bera kaletik zebilen eta bat-batean, zulo batean eori zen. Zulo hortan espazio-ontzi haundi bat zegoen. Berak espazio-ontzia saltzen bazuen etxea ordaindu ahalko zuela pentsatu zuen. Bera sartu zen eta bat-batean, espazio-ontzia aireratu zen. Jack kontroleko penelera joan et ajartzen zuen “Martera”. Jack beldurtu zen.

Ailegatu zenean espazio-ontzitik atera zen hortik begiratzeko. Hor krater bat zegoen eta krateraren barruan diamanteak. Jack diamenteak hartu zien eta ziztu bizian espazio-ontzira bueltatu zen etxera bueltatzeko. Baina espazio-ontzia ez zuen aireratzen. Orduan, berriz kanpora joan zen beste espazio-ontzi bat bilatzeko. Hori hiri bat ikusi zuen eta galdetzera joan zen. Ailegatu zenez, hor estralurtar asko zeunden eta Jack hil egin nahi zuten. Jack konturatu zenean, korrika hasi zen estralurtarrak ez harrapatzeko. Orduan krater batean erori zen, krater hortan beste espazio-ontzi bat aurkitu zuen. Sartu eta berriz aireratu zen ezer egin gabe. Lurrera ailegatu zenean etxera joan zen eta esan zien denei diamanteak zituela eta etxea ordaindu zuten.